

LEHENAGO ETORRIKO ZEN; LEHENAGO ASMATUKO ZUEN

Bi esaldi hauek ontzat ematen ditu Euskaltzaindiak:

- *Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zatekeen.*
- *Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zen.*

Bigarren moldea, zalantzarik gabe, lehena baino maizago aurkitzen da edozein euskalkitan edo erregistro mailatan. Hortaz, ez da ikusten erabilpen hori gaitzesteko edo ez bultzatzeko arrazoirik.

Zenbait gramatikarik normalizat jo izan dute *etorriko zen* forma ezinezko ondorio direlakoetan, hala nola Lafittek (*Grammaire*, 376-7) eta Gramatika batzordeak (*EGLU II*, 431). Bestalde, esan behar da Altube (*Erderismos*, 230) eta Txillardegi (*Oinarri bila*, 143), besteak beste, hemen ontzat emandako formaren, adiera horretan noski, baztertzearen alde egon izan direla.

Iragan-geroa delakoa (adibidez, *etorriko zen*), hemen interesatzen zaigun erabileran (besteak baiditu eta: ikus *EGLU II*, 425), baldintzako ondorioetan ez ezik, baldintzarik aipatzen ez den zenbait perpaus motatan ere erabili ohi da, hala nola: *Oso gustora geldituko nintzen berarekin egun hartan; nork esango zuen hau gerta zitekeela?*; *Beharbada berriro saiatu beharko genuen*. Beti gertatu ez zen ekintza edo egoera hipotetiko batez ari gara, hau da, mundu irreal bateko gertakariak aipatzen ditugu forma hauen bidez (egiazko munduan, ostera, *ez nintzela berarekin gelditu; inork ez zuela esan, eta berriro saiatu ez ginela* presuposatzen dute perpaus hauek).

Haatik, beste modu-nozio bat adierazteko, gertakari hipotetikoak baina gerta litezkeenak aipatzen dituen, alegia, iragan-geroaz baliatzea onartezina da goi-mailako euskaran: beraz gaitzetsi behar dugu:

- **orain bertan txuleta eder bat jango nuen,*
esan nahi delarik:
- *orain bertan txuleta eder bat jango nuke.*

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen; berehala esango niokeen, etab. nahiz hau jakin (izan) banu, etorriko nintzen; berehala esango nion, etab. biak, ontzat ematen dira.*

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)